


# ZAR

**BIZKAITARRAI-BIZKAIERAZ\***

257n. zenbakia  
abendua 2000



BIZKAIKO FORU ALDUNDIA  
KULTURA SAILA  
LAGUNTZAILLE



## LUDIKO ZUGATZ-ZALEAI OROITARRIA

- BARAZAR'en
- ZUGATZ-ARTEAN

## EUSKALERRIAN EUSKERAZ

E U

# 2000-2001 IKASTURTEA

OGEI TA AMAIRUGARRENA  
BIZKAIERAZ  
IRU MAILLA ETA ALKARRIZKETA

Egunak: ASTELEN, EGUASTEN ETA BARIKUETAN EDO ASTEARTE ETA EGUENETAN

Orduak: GOIZ, ARRATSALDE ETA GABETAN

Ordaña: 20.000 PEZETA

Izena emoteko-tokia: EUSKERAZALEAK

COLON DE LARREATEGI, 14-2 - URRUTIZKIÑA 423 53 22 - BILBAO

Asierea: URRILLAREN 9AN

33.<sup>2</sup> CURSO DE EUSKERA BIZKAINO  
3 NIVELES Y CONVERSACIÓN

Días: LUNES, MIÉRCOLES Y VIERNES, O MARTES Y JUEVES

Horas: MAÑANA, TARDE Y NOCHE

Curso completo: 20.000 PESETAS

Inscripciones: EUSKERAZALEAK

COLÓN DE LARREATEGI, 14-2 - TELÉFONO 423 53 22 - BILBAO

Comienzo: 9 DE OCTUBRE

LAGUNTZAILEA


COLABORA



**BBK**  
**Bilbao Bizkaia Kutxa**

# OMENEZ

## AGUR JON ERRAMON, LAGUN ETA ADISKIDEARI



Ainbat eta ainbat urtean Euskalerrria eta euskerearen alde egundoko lana egin ondoren, agur esan dausku euskaltzale nekaezin onek.

Gizon bat ilten danean, itz eder ugari esaten dira berari buruz, euskal esaerak diñoan lez: "Ilda gero, salda bero". Baiña, Jon Erramon aitaturkeran itz eder orreik motz gelditzen dira, berak egindako lanak jakinda.

Nik "Euskerazaleak" alkartean ezagutu neban. Bertan, lanik gogorrenak egiten ebazan, alde batetik bestera euskerarentzat laguntza eske, Aldundian, Udalan, Eusko Jaurlaritzan eta beste ainbeste lekutan. Beti, ingi edo papelez beterik. Ez eban atsedetik artu gura. Lan da lan ibiltzen zan, astegunetan naiz jaiegunetan, euskereari lagundu guran.

Txeratsu artu ninduan eta beti lagun eta benetako adiskide izan zan niretzat. Aolku on ugari emonaz, euskereari gogor eusteko adoretuz eta, batez be, Euskalerriaren alde egiteko.

Euskerea, bizkaiera batez be, euki izan eban gogoan eta azken unerarte olan jarraitu izan dau eten barik.

Betiko atsedena artzeko ordua eldu jako. Bere biotza be guztiz agortuta gelditu da eta eten egin dau bere bidean.

Larogeita amairu urte ebazan Jon Erramonek il zanean. Bizitza luzea euki dau eta ia ia dana bere betiko ametsari ekiñaz: euskera eta Euskalerrria.

Goian bego lagun eta adiskide parebakoa eta mundu onetan izan ez dauan atsedena an goian aurkitu begi oparotasunez.

Laster arte.

MALAXETXEBARRIA'TAR JON

a

### ZER ALDIZKARIA

**Ordaindu, mesedez, ZER aldizkaria! (3.000 pezeta) kontu onetan:**

**EUSKERAZALEAK**

**BILBAO BIZKAIA KUTXA**

**Bilbao, 2095 0000 7 4 20.000 8961-5**

**Adiskide! Mesedez ZER aldizkaria aurrera eroaten lagundu eiguazu!**

**Ebagi orri onetan txarteltxu au eta eroan BBK'ra eta ordaindu 3.000 pezeta. Ez dozu ezer be idatzi bear.**

**Baiña aztu barik esan Kutxan zeure izena eta zeure erriarena. Eskerrik asko!**

## EGILEORTARRAK



Aurtengo urrillaren 21'ean ainbat eta ainbat senditar batu giñan. Guztiak, Egileor eta Urrutia' tar Juan Cruz eta bere emazte Orueta ta Lalloa tar Filomena'ren jarraitzaileak. Danon artean eun eta ogeta amabost izan giñala gero esan euskunez; zenbaki orren barruan ogeta iru ume koskorak izan ziran.

Egun orretarako Italia'n Milan'eko geure senditarrek be etorri ziran; euren artean, aldi baten Milan'en eta Italia osoan Egileor bakarra bizi zanaren alarguna, bere seme-alaba bigaz, onein emazte eta senarra ta oneixen seme-alabak, bata be Milan'en geratu barik. Danak poztasun aundienaz etorri ziran emengo senditarrak ezagutzeko gogo aundiaz; guztiz zortzi izan ziran.

Geuk be pozez beterik artu genduzan; orain arte bakarrik genkian Milan'en senditar batzuk geunkazala, baiña besterik ez. Olan, alkar ikusiaz, guztiok poztasun aundia artu genduan.

Egun orretan eduerdiko 12'etan Meza Deuna izan genduan; ori Indautxun izan zan, Josu Lagundiko ikas-tetxean, Begoña'ko Ama kutunaren izena daroena.

Mezea emon euskun Josu Lagundikoak itz labur batzuk egineuskuzan eta gogoratzen dodanetik irudi bat auxa da: Sendia lan-toki bat dala ta ori ez dala etxe-

koentzat bakarrik lana egiteko, kanpotarrentzat be laguntasuna emoteko dalako; onegaitik, geure ingurukoai be biotz zabalaz begiratu bear dautsegula.

Meza tartean gazte batzuen abesbatzak egoki diran abesti batzuk abestu ebazan. Eta, azkenez, "Agur Jau-nak" abestuz euren ekitaldia amaitu eben.

Jarraian, ondo gogoratzeko, argazki eder bat atara euskuen, onelan aitzu eziñezko egun orren oro; bat euki dagigun.

Argazki ori ataretzean, guztien gañean Begoña'ko Amaren irudi txiki bat be ederto ikusten da ta, olan, geu guztiok zainduten dagola aitzu barik euki dagigun. Iruditxu ori, Begoña'n dagoan irudi lako da.

Argazki ori atara orduko nun agertzen dan dantzari bat "aurrekua" egiteko ta, gaztea zalako, polito ta egoki bete eban bere eginbearra.

Eleizan egindako guztia amaitu ondoren berebi-letan sartu ta Gatika'n dagoan "Loitti" jantokira joan giñan. Euria zan danon samintasunerako, baiña bazkaltzeko, curia izan arren be, jateko gogoa baiño besterik ez da euki bear eta orretarako poztasun aundienaz jarri giñan jantokian. Jatekoak guztiz onak ziran eta guztiok atsegiñez egin genduan geure betekadea.

Bazkaria amaitzerakoan nun datorren Egileor eta Gurtubai tar Manu bakoitzari emoten berak egiñiko geure sendiaren "Belaun-zugatza"; orrelan danok ikusten dogu zelako loturea daukagun geure artean. Belaun-zugatza ori idazti bat lez agertzen da.

Arratsaldeko zazpirak baiño geitxuago danok Bilbao'ra atsedena artzeko.

Tamala eguraldi kaskarra izan zalako, baiña, len aitatu dan lez, ori ez da ostopoa jatekoari ekin eta ekin egiteko dana amaitu arte.

Urrengo egunean, igandean, eguraldi ederra urten jakun. Igande orretan geure tarteko bat milandarraz GUGGENHEIM'era joan ziran, gaur egun erakus-toki orrek ospe aundia artu dauelako.


Gero milandarraz eta emengo beste orrenbeste, ibilalditxu bat egiteko, Bilbao'tik urten giñan. Lenengo geldiunea Gernika'n izan zan, Batzar-Etxea ta ostean dagoan "ARETXA" ikusi egien. Emen "bideo" labur bat imiñi euskuen azalpen batzukaz zeozer jakiteko; onen ondoren geuk biribildu genduezan beste azalpen batzuekaz.

Jarraian Mundakako ibai ertzetik joan giñan eta erri orretara eldu baiño lentxuago ikus-toki baten geratu giñan "Laida"ko ondartza ta "Izaro" ugartea ederto begizatuteko.

Azkenez Mundaka'ra eldu giñan eta ango jai-etxean (casinoan) aginduta geunkan bazkaria emon euskuen. Bazkaltzeko milandarraz itxaso basterra eta ostean dagoan lurralderantza begira jarri genduezan olan ikuspegi ohea euki egien.

Bazkaldu ondoren begira-tokian apur baten, andik itxasoa, Izaro ugartea ta "Antzora" auzoraiño ikuspegi ederra geure aurrean agertzen zalako. Itxasoan "Surf" egin guraz gazte batzuk egozen, baiña orretarako olatu egokirik ez egoalako denporea emoten eben geldi egonaz.

Geure bideari jarraituz Bermeo'n beste geldi unetxu bat egin eta Bakio'rako bidea artu genduan. Bide orre-



*Egileor'tarrak Gastelugatxe'ko Jon Deunaren Baselizea'ri begira.*

tan be apur baten geratu giñan "Gastelugatxe"ko Jon Deunaren basiliza ta atxa ondo ikusteko.

Bakio'ra eldu baiño lentxuago "Eneperi"n be apur baten geratu giñan, batzuk zeozer artzeko ta, bide batez, antxe daukezan baserritarren antxiñako tresna batzuk ikusteko.

Azkenez Bakio'tik zear Mungirantza ta emendik, errira sartu barik, orain egin dauskuen bide barri ta ederritik Sondika'ko egazkin zelaiara sasoiz eldu giñan Milan'erako egazkiña nasai artzeko. Baiña, emen be, betikoa, artu bear eben egazkiña ordu bete luze baten atzeratu egin zan.

Zorionez eldu zan eta milandar sendiari agur bero bat egiñaz joan ziran euren bizi-tokira. Agurra egitekoan samintasunez geratu giñan danok, bai eurak eta bardin geu, eurakaz emon genduan denporea laburregia izan zalako eurekaz emon genduana.

Esan geuntsen, urrengo baten gitxienez iru-lau egunerako etorri bear dirala beste ikusgarrizko tokiak ezagutu dagiezan.

Gaurkoz geiago ez daukagulako, biotzeko besarkada aundi bat danori emonaz, urrengorarte agur bero bat damotse emen dauken senditarren izenean.

EGILEOR'tar Jon' ek

---

## BIZKAITARRAI BIZKAIERAZ

---

# NAFARROATIK ZEAR "MARTZILLA'RA"

Laxaga, gizon eta abade asmalari bat da, indar guztiak Euskalerrian bidetik, Jainkoa'ri askeneko arnasarrarte emon-gura dautsozenak.

Lizarran, bere etxean egiten doguz astero egun bi edo iru, eta esaten azten danean: "Paul! Martzillara joan bear dogu idaz -lantxo bat egitera"; nik beti erantzuten dautsot: berebillari giltza emon ez gero, bertan, bereala egon geinke.

Aurretik, beti arduratzen gara norekin egin gure alkar-izketa ori, eta beti aurkitzen dogu gizon / emakume arduradun bat erriaren berriak batzeko.

Martzilla'ra eldu gintzazenean, itxura makala emoten ebalako erritxo orrek: bai laster konturatu be zergaitik izan zan ori: kaleen izenetan "Principe de España. Plaza de España eta gudal-naguzien" izen larregi ikusi ta irakurri nebanean. Bildur askoren usaia susmatu egin neban, gure alkar-izketaren bitartez.

Martzilla, Ipanaldetik: Faltsez, Erriberri (Olite), Azkoien (Peralta); Ekialdetik: Kaparrotsu eta Bardenas reales; Mendebaletik: Azkoien eta Funes; eta Egoaldetik: Milagro. Kadreita eta Baltierra inguratzen dabe. Ogeita bat, ogeita amabigaz kilometru karratuak daukaz ta bi-milla ta bosteun bizilagun. Bere Ipar-Ekialdetik etorrita, Ipar-mendebaletik Aragoi ibaiak busti egiten dituz beren lurak. Nekazaritzatik bizi dira geien, baiña badaukaz ere garrantzi aundiko azukretegi ta barazkigintza (fábrica de conservas) lan-tokiak.

Erri langillea da!, naizta erriaren itxura antxiñako denboran geratuta duala eman. XV Mendeko gaztelu gotiko aundi tar dauka (ez ondo zainduta) erri erdian, beren ur-inguratzen dautson obirekin, eta Foruak, Leengo Alpontso Gudalari erregeak emon eutsozan.

Eldu giñanean, Ingles andereñoa dan Roke tar Mari Jose itxaroten euki gendun eta beren etxera eroan ginduzan gure alkar-izketarako. Beren aita Roke eta Leza'tar Reinaldo eta beren senarra Landibar'tar Agustín'en aurkezpena eginda, Laxaga itaunak egiten asi zan:

—Badaukazue txistularirik erri ontan?  
Ez! Albokariak (dulzaiueros).

Dantza talderik bai?  
Bai!. orain lau urtetik onantza inguru.

— Badauka erri onek Euskal arimarik?  
Bai! Napar amorratu garela kontuan euki ez gero.

—Nor da dantza-taldearen arduraduna?  
Muskari'ko (Tudela) mutil gazte bat, Kastella -

nos'tar Iñigo ain zuzen. Joandako neguan erakundeko beste lagunakaz dantzari-eguna antolatu ebana.

—Erriko kultur-maillan nola konpontzen zarete?

Badago elkarte bat: "sociedad de amigos del castillo" izendatzen dana. Eta beren buru, Bilbon bizi dan kazetaria: Kanbra'tar Jose Maria dana. Eurak dira emengo jaiak antolatzen dabezanak.

— Badago ardura Euskeragaitik erri onetan?

Bai!, baiña indar gitxi daukagu azkeneko lege madarikatu orren bidez. Gu guztiok Naparrak gara eta bardiñak izan bear genuke, baiña lege orren bidez, bigarren edo irugarren maillan kokatuta gaude erriberakoak.

—Murtxante'ko Ullate eta Gil'tar Dionisio ezagutu zenduen?

(Aitak): bai! eta beren emaztea ere, Torrens eta Kaballero tar Felipa. Arrizubieta apaiza ere bai, Mesa Santua Euskeraz emoten ebana. Felipe, ondo baiño obeto irakatsi egiten eban, eta Irujo tar Manuel ekin ibiltzen zan, mitiñak emoten gerra aurretik.

—Zenbat kanpotar daude Martzillan?

Zubia egin zanen orduan mordozka bat etorri ziran, eta azukre lantegiagaz ainbeste. Gaur egun, zortzireun izango dira guztiz, danak Ekuador eta Marroko tarrak.

— Zenbat aur dabiltz ikastetxean?

Berreun inguru bat, eta Euskaraz ikasten larogei-larogeta amar. Euskeraz "A" eredia bakarrik daukagu eta danoentzat andereño bakarra, urte guztietan aldatzen dana. Olan, ez dago sustrai aundirik aurrerantza benetan joateko. Gaiñera, ez dira ondo ikusiak talde batzuen aldetik. Dana dala, gu oso arduratuta gaude Euskara eta euskal izaera gaitik.

Ikusten dan lez, zeozer dago izartzen Martzillan ere, eta zorionekoa da! Baina goien esan doten lez, laguntza apur bat geiago bear dabe, dagozan zillotik urten dagian.

"ETA ORI, EUSKALDUN GUZTIEN ARDURAN SARTZEN DAN GAUZA DA!"

ATUTXA'tar Paul  
Zornotzan 2.000'an azaroko 12'an

## BEGOÑA (V): GUDALDI BAT

Bizkaitarrak gizaldirik gizaldira izan outsoen maitasunak lortu eban XVIII gizaldian Begoña bere osperik aundienera eltzea. Baiña urte batzuk barru guda zital batek zapuztuko dau ospe aundi ori.

Frantze'tarren Matxiñada izan zan asierea. Egia esan eleizea bera zutunik geratu zan, baiña gudaren txaupenak leuntzeko, zidarrezko argi-moltzoak eta bitxiak emon bear izan ebazan Begoña'k: 1.905 marko edo 962 libra.

Zidar ori ez zan sekula berriro eskuratu eta Aldundiak, Begoña'ko Ama Zaindari ebala kontuan artuta, Jaunerriak aske eukazan zidarrezko age guztiak Begoña'ko eleizeari emotea erabagi eban.

Astuna zan Santutegiak eukan aldi aretako ekonomiarazoa: Zidarra galduta, tximistak zapuztuta bere torrebura eta Bilbao'tik arako bidea diran Askao'ko maillak konpondu-bearrean... Eziu eskatu ezer Bizkai'ko seme-alaba maitaleai, gudak txirotuta egozalako. Egoera orretan Maiordomuak eskutitza egin eutsen itxasoz beste aldean bizi ziran euskaldunai laguntza eskatzeko. Etorri ziran ukarrak. Olagizonak asi ziran barriro Jazokunde egunean burdin-ageak emoten eta torrea ta Askao'ko maillak konpondu al izan ziran.

Gudearen ostean Zamakola'ren matxinada etorri zan, gero barriro gudea eta geroago Napoleon'en sarraskia: Dagonillaren 5n. egunean sartu ziran Bilbao'ra Merlin'en gudariak eta oneik ogeita lau ordutau dana zapuztu eban. Begoña'ko Santutegiak 600.000 erreal balio eban bitxiak galdu ebazan eta txanburua il egin eban. Bilbao'ko agintaritzak eskurik eskura ibilli zan 1813n. urteko bagillaren 21n. egunera arte. Egun onetan itxi ginduezau Frantze'tarrak.

Gudearen azkenean Begoña'ko torrea Napoleon'eu gordeleku biurtu zan eta erasorik aundienak onen aurka izan ziran. Eta Frantze'tarrak joan ziranean be ez ziran amaitu gure zori txarrak. VII Fernando il zanean (1323-09-29) Karlostarren eta liberalen (zurien eta baltzen) arteko gudea sortu zan. Zumalakarregi'reu gudariak Bilbao inguratu ebenean, kalte asko artu ebazan Begoña'ko eleizeak eta orma guztiak jausi ez ba'ziran ain sendoak diralako izan zan.

Inauratze ori amaitu zanean be, ez zan amaitu apurketa, barriro babes-leku lez artu ez egien, liberalak torrea botatzea erabagi eban, azpian lerkaiak ipiñi eutsuezan eta torre zati bat eleizearen sabai-gaiñera jausi zan. Eta itxi egin bear izan zan cleizea.

1836n. urtean, urrillaren 23.n egunean barriro urreratu ziran Bilbao'ra Karlostarren gudariak: San Migel gudalburuak eleizea artzeko agindua emon eban. Illebete ta erdian iraun eban bere aurka erasoak eta azkenean liberalak jabetu ziran eleizeaz goibeltasun aundia sortuz. Janariak gertatzeko iruditegi ta irudiak erre egin ebazan. Amaren irudia ez zan galdu, Bilbao'tarrak Santiago'ren eleizara jatsi ebelako. Eleizako olak eta sakristiko kaobazko

kutzak be erre ebazan, sakristian egoan jaspezko mai ederra be erre eban, illobietako arrilosak be kendu eta guda-lekuak sendotzeko croan ebazan. Agiritegia ta laukiak galdu ziran, ormak kez baltzituta eta sabaiak lerkai zultuta geratu ziran, aldi aretako batek diñoanez dana geratu zan abere-korta baten antzera.

1838n. urtean Madrid'eko Gobernuak eleizetako bitxien balioa neurtzeko agindua emon eban. Batzorde bat arduratu zan Begoña eleizan zenbaketa ori egiteko eta emon ebazan barrien artean auxe diño: "Bear-bearrekoa dauana be ez daukala. "Desamortizaziño-aldiak ziran".

OLAZAR'tar Martin'ek



ALDI ZKARI ONEK  
BIZKAI'KO FORU-ALDUNDIAREN  
DIRU-LANGUNTZA JASO DAU

**EUSKERAZALEAK, EUSKERA ERABILTEAREN ALDEKO ALKARTEAK, URTEROKO BATZAR NAGUSIA EGINGO DAU 2001-01-25 EGUNEAN**

**EGITARAUA:**

- 1.- AURKEZPENA (ZUBIRI'tar IÑAKI'k)
- 2.- URTEKO DIRU-KONTUAK (KARMELE'k)
- 3.- URTEKO EKINTZAK (ZUBIRI'tar IÑAKI'k)
- 4.- BATZORDEKIDE BARRIAK
- 5.- ESKARIAK ETA ITAUNAK

**EUSKERAZALEAK ASOCIACIÓN PARA FOMENTO DEL EUSKERA CELEBRARÁ SU ASAMBLEA ANUAL EN COLÓN DE LARREATEGI 14, 2º, 0" EL 25-01-2001**

- 1.- PRESENTACIÓN (IÑAKI ZUBIRI)
- 2.- CUENTAS DEL AÑO (KARMELE)
- 3.- ACTIVIDADES DEL AÑO (IÑAKI ZUBIRI)
- 4.- RENOVACIÓN DE CARGOS
- 5.- RUEGOS Y PREGUNTAS

---

## BEI-GORRITXU (5n SARIA)

---

Gabon-bezperako negu gorria; txingor-tanberrada leioan. Mateo Txistu mendian dabil erbiaren ondoren, eta bere txistuak entzuten dira aizearen burrundadan. Sukaldearen baztar batean amona intxaur saltsa-biarko egokitzen.

Sutegia bero: argia eta epeltasuna inguru guztian zabaltzen. Aparirako maia prest eta taloa esnekatilluagaz bakoitzentzako apari. Eseri dira umetxoak eta irentsi dute amen batean esnea eta taloa.

Amatxo (Txomintxu'k amari), esne-tanta batzuek sobre dodaz eta emoidazu talo zatitxu bat geiago.

– Katilluan gelditzen dan esnea edan egiten da besterik gabe. Ez noia zuregaitik beste talo berri bat erretzen.

– Bei gorritxuaren esnea obia da Zurirena baño.

– Zeure irudipena izango da; bei guztiak solo berdiñeko belarra jaten dabe-ta.

– Bai, baño, bei gorritxua Attittaren ipuiñetan agertzen da.

– Bai, bai, ala da - diote beste maikide guztiek.

Txomintxu eta amatxo eztabaidan ari diran bitartean, beste anai-arebek zurrut egin diote katilluetako ondakiñei, ortzak zorrotz danboliñeko gaztañei ekiteko. Esan bear degu bitarte onetan aita beieri belarra emoten ari dala eta aittitta danboliñari eragiten. Gaztañak asi dira pin eta pun. Maiatik jeiki eta neskato-mutillek, aulki txikietan, su-inguruan jarri dira aittitta erdian dabela, mauka-mauka gaztañei ainkaka.

—Aittitta, Txomintxu'k, bei gorritxuaren ipuiña esan egiguzu.

—Bai, Bei Gorritxuak badauz bere ipuin bereziak gure artean.

—Esan, esan, aittitta - craso diote beste guztiak.

Danboliña jaso, suari eragin biztuteko eta asi da aitona kontu-kontari:

— Bein batean, Goikola'ko neskatxa mendian ganadua zaiutzen dagoela, jo eban ekaitzak zeruan eta etxeko bei gorria galdu eban basoan. Sartu zan bera be basora eta an topa eban bere etxeko bei gorriaren

antzeko bat. Eurena zalakoan, eldu eutson buztanetik etxeruntz eramateko.

Eta, zer egin eban beiak? dio Anetxuk.

Arin-aringa asi zan baso-barreneruntz.

– Ez al eban etxera etorri nai? -Pedrotxo 'k

— Goikola'ko neskatxak buztanari eutsi eutsan indar guztiaz eta beiakin batera an joan zan oian barreanean zear.

– Noraiño eraman eban?

– Koba-zulo sakon bateraiño.

– Baina beia leize-zuloan bizi al zan?

—Bei arek Bei-gorritxu eban izena, baño ez izana.

– Zer zan, ba?

—Bei gorri baten itxurak artutako sorgiña: Mari, sorgin guztien erregiña.

Begoña'ko Andra Mari'ren senitartekoa?

– Ez, umetxo, Begoña 'ko Andra Mari'k ez dau zer ikusirik Mari sorgiñarekin. Batzuek, gure artean, nai dituzte biak alkartu, izaki baten bi aurpegi balira bezela. Bi gauza desberdiñak dira.

—Mari sorgiña jentillen erregiña al zan?

—Eta Begoñako Andre Maria Jesus'en ama eta gurea ere bai. Biar ikusiko dogu korta batean Jesus Aurra eskuetan daualarik.

– Eta, zer egin zion Bei-gorritxu sorgiñak Goikola'ko neskatxari?

– Berarekin koban bizitzen imiñi, neskame bezela.

– Eta, an al dago ondiño?

– An egon zan denbora luzean eta ez zan iñor araiño ausartzen.

– Orduan, Mari gaiztoa da.

– Mari sorgiña gaiztoa eta ona ere bada. Begirude dionari mesede asko egiten deutsoz.

– Au bildurra gabaz etxetik irteteko!

— Gabekoak gabekoentzat, esaten zuten gure aurrekoek eta egunekoak egunekoentzat.

– Eta, amak gauzez metal-iturrira bialtzen ba'gaitu, orduan zer?

– Ba, andik etorrita, sutegiko ikatz goritu bat sartun bear da uretan, gaueko espiritu txarren kutsuak kentzeko...

\*\*\*



Gaueko garbiketak eginda, ama urreratu zaie lotarako ordua dala-ta; baiña, umetxo danak asi dira protestaka:

– Biar festa dogu eta utzi eiguzu Beigorritxuaren ipuiña amaitzen!

– Bai apurtxo batean laga neure illobatxoak nerekin. Zer geiago jakin nai dozue?

—Bolueta aldean ebillen artzaiarena.

— Bein batean baserritar batzuek etorri ziran Amboto'ko Mari sorgiñaren gana, mesede eskatzen; baiña, Mari'ren serbitzariak esan eutsen Bolueta aldean zebillela, ezak kobratzen.

—Mari'k gezurra esaten dauana, zigortzen dau.

— Alan bada, Mari ona da; Jainkoa'ren antza dar"

—Jainko baten antzera, aginduak ere badauz.

– Baiña, aittitta, ez diguzu esaten ezak kobratzea zer dan.

– Gezurra zigortzen damita be, esan deusuet.

– Eta, nolan zigortzen dau, ba?

– Bolueta'ko artzaiñak eun ardi eukazan larraiñean; bada, arakiññari larogeita amar eukozala esan eutson.

– Ori gezurra da eta zer zigor emon eutson?

– Eukozanak baño amar ardi gutxiago esan zuen eta orretzek kendu eutsozan gezurraren kastigu.

—Kastigu ederra da.

—Sariak emoten be badaki.

—Goikola'ko neska basoko leizean eukon sartuta Mari Beigorrituak eta zelan esan dozu Anboto'ko aitzetan bizi dala?

– Gure aurrekoek esaten eben - naiz eta benebenetan sinistu ez - Mari'k zazpi zulo-bizitza bereziak eukozala Euskalerriko leizeetan.

– Eta, zelan joaten zan batetik bestera?

– Sua dariola joaten zan beti, batetik bestera, aidean: batzuetan susko zalgurdi batean, txinpartaz inguraturik eta zalapartaka: beste batzuetan sutan dijoan arbola baten antzera; baita illargi eta itaiaren itxuran, baiña, beti sutan...

– Eta Goikola'ko neskatxa ez al zan sekulan kobazulotik unen?

—Bere billa ibilli ziran ibilli guraso, senitarteko eta lagunak; aspertu ziranean, orduan Mari'k, bere menpean ondo portatu zalako, jantzi ederrak eta otzaratxu bat emon eutsozan.

– Otzaratxua zertarako?

– Otzaran ikatza imiñi eutson.

– Bere baserrian olagizonak al ziran, ba, ikatza emoteko?

—Etzerako bidean dijoala neskatoa, otzarako ikatza, urre biurtu.

– Zer poza artuko eben gurasoek urrea otzaran ikustean!

– Alabatxu, urreagaitik ala berriro alaba etxean egoalako?

—Biakgaitik, attitta.

Ama agertu zan berriro sukaldean, tresnak jaso eta gelak prestatu ondoren, seme -alabaxuei onela esanez:

—Gaurko naikoa da; laga biarko zeredozer; oak bero-bero dozuez eta lotaratu baño lenen, otoitzak egin.

Umetxoak lotaratu ziranean, amamak errautsagaz sukaldeko sua eztali zuen: bigaramon goizean, errautza kenduz, sua berriro bizi-bizi agertu zedin. Berekasa ziarduan:

Bai, ba, guk egunez bear dogun sua, gure aurrekoek gabaz bear dute. Biziak eta illak danok alkarregaz beti sutegiaren inguruan.

"Egia ba'zan, sartu dedilla kalabazan eta urten Elorriño'ko plazan:'

ARRINDA'tar ANES

≡ ≡ ≡

### BERBALAPIKOA

Lotu= batu, alkartu, bat egui.

Jatorri= etorburu. nondiko.

Fogerazino= antxina egiten zan familien zerrendea.

Ingude= burdineari itxurea emoteko azpiko euskarria.

Marai= orain dala 300 urteko dirua.

Gurbizti= gurbizi askoko lekua.

Burdin·mea= burdinazko miuerala.

Andapara= errotako ubidea.

## EGIA

Egia gauza ederra da, gizon zuzenak nai dauana eta beartsuak itxarora. Sortzetik personeak, berez, daroa egiaren deia. Iñork ez dau nai guzurragaz atsipetua izaterik. Izan ere, gizona ez da saminpean bizi izateko jaioa. Lenengo asieratik artu genduan agiudu au. Bai bai, ez ez. Gauzak diran legez, gauzak diran legez artu ta azalduko dituzu. Bide ortatik alde ezker, gure izatea miñetan nekepean dago. Gauza guztiak curen lege ta jakituripean egon bear dabe.

Gizadiaren Sorleak giza-bizitza ondo eratu ta aun-era joan dedin gizartean, zuzentasuna eskatzen dautse lagun guztieri. Argiak ta egiak lagundu bear dautse, giza-semeak bere barruan daroan zuzentasun bear izanari. Egiak uts emoten ba-dau oster, uorbait edo zerbait minduta ta zapalduta geratzen da.

Zapaltzailleak iru eratakoak izan ditekez: zeiak, jakitunak eta indartsuak. Mundua da barriz gizarteko zapaltzailleen ziñaldari edo testigu. On egiten dan guztia goratuko dau argiak eta lurrak, ta egiten dan zapaltze guztiak minduko dau egiaren bizia.

Gizartean geienak izango dira txikiak, bear izana ondo ezagutzen dabenak. Onein artean errukia ta laguntza askok agertuko dabe. Au da gizadiaren sorleak nai dauan jokabidea ta giza-seme leialak, berezko legiari erantzunez, lurtean betetuten dauan eginbidea. Ori da beartsuak egoki ikusteu dauan jokabidea ta ortik etorri bear dau gizarteko bizikera obeak, alkarta-

sun ta anaitasuna. Era ontan jokutzen dan bitartean, egia ta zuzentasuna dabiltaiz gizartean gidari.

Lurrean, oster, jende zeiaeren artean be itsutasuna arro-arro, dabil. Arrokeriak gizona puztu ta xaxatu egiten dau ta giza-gaisoa zerbait dalakoan goiak artuta dabil besteak baiño aundiagoa izan nairik. Ta orren bidez bizitzako bakea ausi egiten da, anaitasuna urratu ta bizia zauritu. Era ontako jokabideak, gizadiak daukan giza saillik bikaiñena loituta izten dau.

Beste zapaltzaille bat giza-jakituria izan leiteke. Jakituria, berez, gizonak argitu ta munduan ona zabalteko izan bear leuke. Jakituriz gauza on asko egin da munduan, gizonak argitu, bizi-bide barriak sortu, gosea ibitu... ta gizadiak abegi onez artu izan ditu gizonaren alde egindako lan ta egintza guztiak.

Baiña jakituriak ba dau beste alderdi bat bere munduan... buruaren argi bidez negar asko eragin da gizartean, ondasunak norbereganduz larregikerian... Era ontako jokabideak negar asko eragin dabe gizartean. Egiak ezin ditu ouartu era onatako egiturak.

Egiaren etsaia da baita bere indarkeria. Gorputza, gogoa, indarra gauza ederrak dira osasunagaz batean gizartean bizitzan. Gizon argi ta indartsuek on asko egin dabe mundu zabalean, zuzentasunez jokatu dabenean, baiña gizonak ta jokabide orrek lortu bear dau gizonaren poza lurtean.



Egia zer dan galdezka dago gizonen buru txikia arazo asko bai dauz gizonak jorratuteko bizia, argia nai dau lan aldietan zuzenduteko bidia era orretan jorratuagaz aurkituteko berbia.

Giza-egia guztiz eder da jakitunen agoetan okerrik barik egaz ba-lebil adimenen egaletan, baiña zoritxar gaiztakeria maltzur dabil ekiñetan giza-bizitza zapaldu nairik guzuraren ezipaetan.

Egia dabil liburuetan baita, borbor, agoetan izenez dabil zoratiu-ikan min gaiztoen dardaretan, baiña txarkeriz auldu dago gizonen min gaiztoetan gizarte argi bear leukena biziaren egunetan.

Egirik bage norantza goaz giza-bizia salduta, guzurak atsekabea dakar zuzentasuna galduta ondoren dator gorroto-garra biotz bizia minduta, oi zein miña dan gizon artea egi argia illunduta.

Egia, berez, argitsua da zuzentasun izprietan eta gizonak argia bear bizitzako orduetan, zelaiak zear erbiak legez jorra daigun egietan bake ta poza izan daiguzan bizitzaren orduetan.

PAULIN

# BAKIO

## NEKAZARITZA EKOLOGIKOA

Maiatzaren 8tik 19ra arte, arratsaldeko ordutegian, Kultur Etxean Nekazaritza Ekologikoan asteko ikastaroa emon eben. Bertan ainbat gai interesgarri aztertu ziran: nekazaritza, ortuzaintza eta frutagintza ekologikoak, lurgintza alternatiboak, abelazkuntza ekologikoa, e.a.

Ikastaroa amaitu ostean, gai orretan jarraitu gura dauan lan taldetxua sortu da. Talde orretan baxotxaren esperientziak azaldu, sortutako arazo eta arduretzaz berba egin, eta danon artean aurrera egin gura dabe nekazaritzako zaletasuna aberasteko. Edonorentzako esku artzeko deia eginda dago. Urrengo batzarra datorren irailaren 19an izango da Kultur Etxean, arratsaldeko 7:00etan.

## BAKIOTIK SENPERERA

Urtero lez, aurtengo maiatzaren 14an be egin zan Iparraldeko ikastolen aldeko jaia: Herri Urrats, Senpereko urtokiaren inguruan. Ara urreratu gintzazan Bakiotarrok be. Eta joan be, Bakioko Euskera Batzordeak eraturako autobus batek eroanda 20 bat lagun joan ziran. Beste batzuk autoetan urreratu arren, autobusean urterik urtera lagun gitxiago joaten da. Ara joandakoek, ostera, giro euskaldun ezin obeagorik gozatu eben.

## ITXAS-ALDE'ren BARRIAK

Garagarrilan Frantziako Nimesen dantzan egin ostean, dagonilaren 5etik 1 ira bitartean Bulgariako Varna uri andira joan ziran, bertako Naziuarterko Folklore Jaialdian esku artuteko. Beste alde batetik, dagonilaren 15eko urteroko dantzaldi nagusia prestatu eben. Aurten makila eta uztaien ganeko dantzak izan ziran nagusi. Oñati eta Lesakako dantzak egin ebezan leenengoz. Baita musika tresna barriak be erabili: bibolina eta violoncelloa. Gero, oporrak, iraila amitu arte, artean agertu ziran ezkontzak eta dantzaldiak kenduta, jakina.

Iniaki Martiartu

## PINTURA LEIAKETEKA

Joan dan bagilaren 17an Bakioko I1I. Kaleko Pintura Leiaketeka egin zan. Guztira, 18 eskuartzaile izan ziran, eta irabazleen izenak oneexek dira:

Leenengo saria (akuarelea): **Piedad Santamaría**

Bigarren saria (oleoa): **Julio Gómez Mena**

Epaileen aitamen berezia: **Itziar López Zorroza**

## UDALEKU IREKIAK BAKION

Garagarrilaren 17tik 28ra arte, goizeko 10.00etatik arratsaldeko 5.00etara, 24 ume eta begirale bi ibili jakuz Bakion, gora eta beera, olgetan, mendian, kirol eta tailerrak egiten, aretzan, jokoak prestatan..., eta begiraleen "akuilukaden" lagutuz euskera uts-utsean, ganera.

Laukizko

## ITXAS-ALDE DANTZA TALDEA NIMESEN

Joan dan garagarrilaren 7an urten genduan dantza taldeko ainbat dantzarik Bakiotik Frantziako Nimes urirantza. Bertan, ondo etorri ona egin euskuen eta esan bear dogu, gero be, ederto esan euskuela. Iru egunean dantza egin arren, turismo apur bat egiteko astia be izan genduan. Atan bada, Nimeseko erromatar koliseoa eta "Maison Carrée", erromatar tenplua, bisitatzeo aukerea euki genduan. "Le Pont du Gard"-en be egon ginan, an dagoan ubide ederra ezagutzen. Ikusten dan tez, ondo aprobetxatu genduzan iru egun orreek, bai dantzara eta baita astialdirako be.

Dantzaldiei jagokenez esan bear dogu, gure dantzak asko gustatu jakezala esan euskuela eratzailleek eta ikuslegoa be naiko pozik ikusi genduala. Alan da ze, indartuta etorri gintzazan urrengo dagonilaren Sean Bulgariara joateko, gure erriaren izena mundu zabalean aal danik eta ondoen eroaten ahaleginduteko.

Unai Beitia

BERBALAPIKOA  
ubide = akueduktu.

---

## ALBISTEAK

---

### "ALAITASUNA" PELOTA TALDEA

Mugaz beste aldera...? Bagilaren 3an, Alaitasunako kideak erramintak artu eta Iparraldekoa dan Baiona ondoko Mugerre (bertakoentzako Elizaberri) errira abiatu ziran, "Alaitasuna" eguna ospatzera.

Egun ori gitxitxuago ezagutzen dabezan frontoi berezi bitan igaro eben, trinkete eta orma bakarrekoan.

Goizeko ekitaldiak egin ostean, Alaitasunako sukaldariak egindako bazkariari ekin eutsoen gero. Zaleen artean artuemonak sakonduz, trinkete areri buruz berba egiten egozala, eldu jaken etxeratzeko ordua. Une aretan sortu zan unerik arrigarriena. Trinketearen erabilera ordaintzerakoan, jaubeagaz euskeraz egin bear izan eben alkar ulertzeko. Espainiera eta frantsesaren aurrean euskerea nagusi.

Iniaki Martiartu

\*\*\*

### MUSIKA ESKOLEAREN ENTZUNALDIA

Bagilaren 21 can, arratsaldeko 5:30etan, Eskolako oktogonoan, Bakioko Musika Eskoleak ikasturte amaierako entzunaldia eratu eban. Bertan lau urterik gorako ume eta gazteek musika tartetxuak eskaini euskuezan.

\*\*\*

### IPUIN KONTALARIAK

Iruki taldeko ipuin kontalariak Kultur Etxeko Liburutegira etorri jakuzan, garagarriaren 20an eta 27au, arratsaldeko 6:00etan, txikientzako kontu zoragarriak kontatzen.

### ZERAMIKA TAILERRAK

Garagarriean, 7 urterik 12 urtera bitarteko txikiek zeramika tailerretan esku artu dabe, txanda bitan. Bertan, eskuz egindakoak pitxarra, zebra, dortoka, eta oilarrak izan dira.

### MARRAZKI TAILERRAK

Garagarriean, 10, 12 eta 14an, goizeko 11.00etatik 13.00etara, 4 urterik 7urtera bitarteko txikiak Kultur Etxean ibili ziran eurek egindako marrazkiez mural berezia egiten.

Laukizko

\*\*\*

### MUSIKA ASTEA, INOZ BAINO ARRAKASTATSUAGOA

Aurtengo Musika Astea joan jaku eta esan bearra dago, aurtengoa, bai ikusleen kopuru aldetik bai musikarien kalitateagatik, inozkorik arrakastatsuen izan dana.

Talde guztien mailea ikaragarri ona izanarren, azpimarratzekoak izan dira Moskuko Birtuosoek eta VOX AURAE ganbera orkestreak eskainitako kontzertu gogoangarriak.

Era berean, ezin dogu aaztu probalekua samaraino bete eban OSKORRI taldearen egundoko jaialdia, are gitxiago ekitaldirik jendetsuen izanda. Alan da ze, merezi izan dau eratzailleek aste au eratzeko egin daben aalegin andia. Urrengo urtekoa aurtengoa besteko ikusgarria izango aal da!

Ziduri

\*\*\*

### GOITIBEEREN JATSIKERIA DALA ETA

Udal zinegotziek eta ainbat kultur alkartetako ordezkariak osotutako Jai Batzordeak 1998. eta 1999. urte bietan goitibeeren jatsikeria antolatu eban, besteak beste.

Aurten, batzorde onek txapelketa ori ez egiteko erabagi sendoa artu dau ago batez.

Orretarako arrazoia onaxekoa izan da: leiaketa mota oneetan izaten diran ezbear larriak, esaterako, igaz Zeberion izandako partaide baten eriotzea.

Olan, gaur egun oraindino be ez dira zeaztu proba ori antolatu eta zabaltzen lagundu eben erakundeen erantzukizunak.

Emen be antzeko zeozer jazo leitekelaokan eta Jai Batzordeak olango ardureari ezin jakola aurre egin kontuan artuta, leiaketa ori ez egitea ebatzi da. Gure jarrera ulertu eta jaiakaz aalik eta geien gozatu dozelakoan, agur t'erdi. Gora San Joan Dolozak!

Bakioko Jai Batzordea

\*\*\*

## **MENDIKO TXIRRINDOLA IBILBIDEAK**

Joandako garagarrilaren 20an, txirrindolearen ganean ibilteko ibilbide barri bi zabaldu ebezan gure errian, au da, "Jesus Loroño" eta "Valentin Uriona" izenekoak.

Leenengoa (14km) Sollube mendiaren inguruan dago eta bigarrena (12,5 km) Jata mendiaren inguruan. Danetara 25 kilometro dira. Ibilbide bien artean, 14 km aurgoran eta beste 10 km aurbeeran egitekoak dira. Ezin leiteke esan, bada, ibilbideok ibilteko lar errezak diranik.

Ori bai, ibilbideei jarraituteko bear diran beste bide seinale imini dabez. Txirrindularitzearen bidez ingurugiroaren aldeko jokaerea indartu gura dabe. Bizkaiko Foru Aldundia izan da, Euskadi Fundazioagaz batera, orren guztiorren eragilerik nagusia.

Esan bear da be, ibilbideen esku informazioan leku izenen erabilera okerra egin dabela, arteztu bearrekoa, atan be.

\*\*\*

## **SURF TALDEAREN BARRIAK**

Udea berton dogu eta BSTk ekitaldi piloa eratu dau sasoi oneri bear dan bestekoa atarateko. Aor dozue zerrendea:

—Erriko OPENa: BST Bakio 2000. Sub-16, ncskak, Body Board eta Long Board kategorietan, garagarrilaren 15etik 16ra bitartean.

—Garagarrilaren 28tik 30era Portugaleko Santa Cruz urian klubon arteko txapelketea egin da eta an izan dira BSTko surfleriak Bakioaren izenean.

—Irailaren 9tik 10era bitartean Udako Erriko Bigarren Txapelketa Idigia izango da. Txapelketa biotatik datorren urterako ranking-a egingo da.

Ekitaldi orreetaz gan, aurtan be surf ikastaroa dogu aretzan, garagarrilaren 3tik dagonilaren 25era arte. Izena emoteko Turismo Bulegora jo bear dozue. Gogoratu bear da BSTko kamisetak Turismo Bulegoan dagozana merke-merke erosgai. Eta azkenik, BSTren web orria: [www.bakio.com](http://www.bakio.com), bertan dozue BSTren txokoa informazio eta argazkiz beteta.

Iniaki Martiartu

\*\*\*

## **BAKIOTIK ATHLETIC-EN ALDE**

Urtean zear Athletic-en ainbat partidu ikusi dodaz. Beren-beregi orretara urreratzen izan naz Bilbora. Bertoko Athletic-en aldeko "peña"ren bat? Ori bai, baldintza bakarra, jarduera osoa Mendebaldeko euskeran egitea.

Jo Pelotie

\*\*\*

## **NAZINOARTEKO XIV. FOLKLORE JAIALDIA**

Urtero lez eta goiko probalekuan, garagarrilaren 30ean, gaueko 10.30etan asita, Nazinoarteko Folklore Jaialdia izan genduan errian.

Bertan izan ziran Eskoziako Aberdeeneko eta Frantziako Nimeseko dantza taldeak.

Urtero lez be, bakiotar eta udatiarren erantzuna bero-beroa izan zan.

Atzeritarrak sano pozik joan ziran gure arterik.

Bakion ez eze, Gernika, Derio eta Forun be dantzan egin eben.

Iniaki Martiartu

## **DIAPORAMA EMONALDIA**

Maiatzaren 19an, arratsaldeko 8:15etan, diapo-emonaldia euki genduan Kultur Etxean. Namibiari buruz ainbat gauza interesgarri entzun eta ikusi aal izan genduzan Arturo Elosegiren eskutik.

## **JAIETAKO KARTEL LEIAKETE**

Aurtongo jaietako kartel saritua Bilbokoa dan Marta Fernándezek egin izan da.

## **IKASLEEN ERAKUSKETE**

Kultur Etxeko ikastaroetako ikasleen pintura eta esku lanak ikusi aal izan genduzan erakustaretoan bagilaren letik 16ra arte.

Laukizko

\*\*\*

## **ABESBATZAREN ALBISTEAK**

"Bakiori ereserkia" dalakoa bagiletik entsaietan dabil abesbatza, jo ta ke, datorren urtean erriaren aurrean leenengoz abestuteko.

Berbak Zeberioiko semea eta Deustuko Unibertsitateko Euskal Filologia arloko irakaslea dan Juan Manuel Etxebarriak egin dauz.

Musikea, barriz, Goikoleako Aita Paskual Barturenak.

Abesbatzak dagonilean oporrak artu dauz, irailaren asikeran barrero ekinean asteko, udagoien eta neguari begira, atan be.

Iniaki Martiartu

# GERNIKA'KO BATZAR-ETXEA (III): ARITZA



Antziñakoa bai, baiña ez dakigu noiztikoa dan bizkaitarrak Lege Zardun aritzari edo Gernika'ko zugatzari dautsoen itzaltasuna. Batzar uagusiak egin ziran beste zugatz batzuren azpian, beste leku batzutan be, baiña astiro-astiro toki eta zugatz oneik aitzu egu dira eta bakarrik geratu jaku Andra Mari Zaarra'ren zin-eleizcaren ondoan dagoan aritza. Toki au antxiñatik da ezagutua.

### JAUNAK ZUGAZPEAN (So el árbol).

Baikaia-ren jaunak Gernika'ko zugatzaren azpian egu bear eben euren ziña, eta beste toki batzutan be bai eta ziña zan "Bizkai'ko lege zarra eta ekanduak aintzat artu eta beteko ebezala". Eta ori eginda gero baiño ez ziran artzeu Bizkai'ko benetako jaun lez.

1040n. urtean asita, urte orretan aitatzen da lenengoz gure Jaunerria, Bizkai'ko Jaunak Gaztela'ko kondeak ziran eta gaztelako erregearen menpean egozan eta Bizkai'ko lurra eucna dala esan eikeen Gaztela'ko erregeak ori nai ebelako. Gero Gaztela'koaren emaztea, Juana Manuel izenekoa, erentziz eldu zan Bizkai'ko andrea izatera eta onen semea eta ondorengoa (erederua) zan Juan jaunak Bizkai'ko Jaunaren izena artu eban eta au 1379n. urtean Gaztela'ko errege egin eben.

Onen ondoren Gaztela'ko erregeak Gernika'ko zugazpean egiten ebeu zina. Lenengo aitatzen dana XI Alfontso da (Bizkai'ko XIV) jauna. Baiña gauza ziurra da zugatza askoz antxiñagokoa dala.

Aurrera jarritu baiño len ezin itzi esan barik, jaun oneik Euskalerriri kalte aundia egin eutsoela, orrelan asi giñalako geure buru-jabetza galtzen eta orretan ekingo dualako, gaur arte, España'ko agintaritzak. Gogoratu Bergara'ko besarkadea, Lege Zarra kentzea eta abar.

Fernando Errege-Katolikuak ziña egin oudoren (1476, 24n. Jauna), ez ziran erregeak Gernika'ra etorten, naikoa zan Lege Zarra onartzen dabela agiria izenpetzea eta agiri au aundikiro irakurten zan batzar Nagusian, Gernika'ko zugatzaren azpian.

### LEGE ZARRAREN ZUGATZA

Gaur daukagun zugatza zin -tokiaren aurrean sartu eben 1860n. urteko urterillaren 15n. egunean. Onen aurrekoak urte bateko bizia baiño ez eban izan. Baiña biak dira gaur Zugatz Zarra esaten dautsagunaren ezku-

rretatik sortuak. Au urte orretan asi zan igeskatzen. Barda sartu ebana Allende Salazar'tar Kastor Errialde onen Aita izan zan, lekuko gitxi batzuren aurrean. Gaurko zugatza ba, ziña egiteko ziran aurreko zugatzen ondorengoa da.

### BATZARKIDEAK

Gernika'ko Batzar oneik egitea 1877n. urtean amaitu zan, gure Lege Zarra kendu euskuenean. Batzar oneitan Bizkai'ko Ogi-lurreko Jauuak, Urietakoak eta uri nagusikoak, Enkarterrikoak eta Durangoaldekoak batzen ziran Jainkoaren eta Erregearen serbitziorako ziran gaiak aztertzeke. Jaunagaz batera ez etozanean "Pase Foral" edo "Se obedece pero no se cumple" erabagi bear izaten eben.

Azkenengo zati oneri azalpeu bat zor dautsogo: Bizkaia'n lurralde bat baiño geiago egoan eta lurralde oneitariko bakoitxak bere batzarra egiten eban: ogi-lurra edo lur laua esaten jakon lenengotan bakarrik Gernika'n batzarra egiten ebanari. Enkarterriak bere batzarrak Abellana'ko batzar-etxean egiten ebazan eta Durango- aldekoak Gere-diaga'ko Batzar etxean.

Amabigarren gizaldi inguruan asita, Jaunen aginduz, erri-barruetan Uriak sortu ziran, esaterako Areatza'n Billa-ro, Ugao'n Miraballes, Markina'n Villaviciosa, Lumo'n Gernika, eta beste toki batzutan izen bera zainduz, esaterako Bermeo, Mungia, Larrabetzua, Errigoitia, Balmaseda... Eta uri oneik euren lege bereizia euken. Asieran ez ziran joaten Gernika'ko batzarretara, Uri aundia zan Orduña be ez. Geroago sartu ziran jokabide orretara. Orrelan Bizkai osoa azken baten batzen zan Gernika'ko batzarretan.

### AZTERPENA

Amaitzeko esan dagidan Gernika'ko Batzarren bidea gure buru-jabetza galtzeko bidea izan zala. Samintasuna sortzen dau gure barruan Batzar oneitan kanpokoak ziranak, Jaunak eta ordezekoak, ainbesteko aginpidea eukela jakiteak. Lege Zarra zan gure eskubide nagusia, baiña Lege Zar ori murriztuta agertu zan Gernika'ko Batzarretan. Erdera berba egiten zan eta erderaz idazten ez ekie-nak etxera bialtzen ebezan.

Obea ete da gaur daukagun Araudia beronen parlamentu ta guzti? Gure artean gauzak asko nastau dira, zori txarrez, eta ez dauskue izten euskaldun-euskaldunak izaten. Ori agiri da alderdi politikuen jokoan. Erakunde barri bat eskatzea, Euskalerrri osoa, "Zazpiak bat" eskatzea, gaurko burrukak baiño lenagoko gauzea da eta erriagintaritzaz gortzen dabenak ori artu bear leukeen oiñarri lez. Ez dago beste biderik geure buruaren jabe izateko, erriak ori onartzen ba'dau. Eta erriak onartuko ez ba'leu or jokatu bearko geunke gure erria bere senera, euskaldun izatera, biurtzeko.

OLAZAR'tar Martin'ek

---



---

## OLABARRI

---



---

Orain arte agertu doguzan baserriak beti lotu izan doguz eruren jatorriagaz: bata dorretxea zala (IBARRA), bestea familia ospetsutik etorrela (MUXIKENE)... Oraingo onetan. eta aren izenak berak esaten dauan lez, ola (burdinola) baten dauka jatorria: OLABARRI.

1745. urtean, Ondarra izenagaz ezagututen eben. Izan be, Ondarra baserriaren olea izango zan -eta.

Orduan Frantziska Elexpuru zan jaubea.

Elexpuru sendia aiubat baserri eta lurren jaube izan zan sasoi atan.

Domingo Renteria eben errentadore Olabarrin.

Ordurako errota lez be ezagututen eben bakiotarrek.

1796ko fogerazinoetan Olabarrin izenagaz agertu jakun, gaur arte eutsi deutson izenagaz, agertu be. Orduan, On Manuel Elexpuren jaubetzapean egoan.

1764.ean, bertan bear egiteagaitik, alogerearen truke 164 dukat ordainduten ebezan, Goikolean baino gitxiago.

1768. urtean, oraindikarren Frantziska Elexpurrena zanean, Frantzisko Andraka administrariak olea eta errotea jaieguneatan be erabilteko eskatu eban. Orduan, elizeak alan aginduta, ezin eitekean jaiegunetan bear egin eta. Gorabeeraren bazuen ostean, eskatutakoa onartu eien lortu eban.

1775. urtean, Ondarrako burdinolea zein errotea tasatu egin ebezan: 29 auspotzar, 2.425 errealen balioan; mailutzar bat, 1.250 errealen balioan, ingudeak 1.300 erreal... eta olan 80 partida eukazan zerrenda luzea bete arte. Guz-tira 17.149 erreal eta 8 maraitan tasatu eben.

1776. urtean, Ondarrako burdinolako olagizonak, On Frantzisko Andraka, Ibanangeluko baso bateko artadia eta gurbiztia artu ebazan errentan, burdinolea ikatzez orniduteko. Burdin -mea ostera, Enkarterrietatik itxasoz ekarten eben eta Areaga aretzean izten eben, burdinolatik ur.

Olabarriko Eusebio Ugartek dinosku, beraren aitit-amamaren sasoiaren burdinolea oraindikarren ibiltzen zala, ez, ostera, gurasoen sasoiaren.

Ori bai, errotea orain urte batzuetara arte ibili izan da, 1989. urtera arte, udalak San Pelaioko tiren bideak barriz-tatu artean, atan be. Alan be, ubiderik badauka eta andaparearen ormek be or dirae zutunik. Euki be, erriko andapararik andiena ei eukan.

Gaur egun, baserri lez erabilten baino ez daben etxe orrek istorian zear ainbat aurpegi erakutsi deuskuz: burdinola, errota, baserri. Eta baserria baino ez bada be, arek daukan izenak beti ekarriko deuskuz burura izan dauzan istoria eta izakerea.

Anartz ORMAZA

## JATABIKE TXIRRINDULARITZA TALDEA

Urrengo lerroota, "Jatabike", sortu barria dan Bakioko mendiko txirrindularitza zaleen alkarteko kideetariko bateri egin dutsogun alkarrizketea daukazuen irakurgai. Kide ori Unai Madariaga da, izan be. Amen dagoz bada berak guri esandakoak.

ZER: Noztik eta nortzuk zabilze bear onen inguruan?

UM: Bada, olango gauzak gureztala asten dira formea artuten eta au be olantxe asi zan.

Ander Abio, David Ugalde. Mikel Zabala eta laurok asi ginan kontu au benetan planteatu guran eta Jokin Arroyok be asko lagundu deusku Turismo Bulegotik.

Orain urte bete inguru asi ginan bearrean, esatutuak prestatu eta paperak eroaten.

ZER: Jaso dozue laguntzarik?

UM: Bai. Laguntzarik badaukagu, bai Turismo Bulegoak, bai Bakioko Udalak eta baita Euskaltelekoek be lagunduten deuskue.

ZER: Badago zaletasunik errian?

UM: Bai. Errepideetan baino, ainbat geiago txirrindulari dabil Bakioko mendietan. Jendeak mendi bnizikletarako zaletasun andiagoa dauka eta ganera, gure erriaren inguruan leku ezin obeak dagoz kirol ori praktiketako.

ZER: Ekitaldiak eratuten asi zaree. Zeintzuk dira aita-garrienak?

UM: Euskadiko Opena Bakion egin da eta seguru antzean atzera egingo da bertan urrengo urteetan.

Ori da bat, eta bestea Bakioko urteroko martxea.

Orrezaz ganera, erriko jaietan lasterketa bat egiteko ibilbidea prestetan gabiltz eta , bearbada, aupadearen bat be eratu geinke, txirrindulari bat asto baten aurka edo. Baina, ikusi egingo dogu.

ZER: Zeintzuk dozuez aurrerantzarako asmorik garrantzitsuenak?

UM: Une onetan babesleren baten atzetik gabiltz, batez be taldearen tresneria lortuteko.

Beste asmo garrantzitsu bat bazkideak lortutea izango litzateke, ea erriko mountain-bike zaleak guregaine urreratuten asteu diran.

Orretarako naikoa da Turismo Bulegora joatea eta an esango deutsee zer egin.

Aurrerantzean, kanpora urteteko asmoa be badaukagu, au da, Asturias edo Pirinioetara, baina orretarako bearra eta denporea bear izango dogu. Olan bada, erriko txirrindularitza-zaleei animetako esango neuskie, eta datozela guregaine.

Unai BEITIA

## LEENENGO EGUTEGI BIZKAITARRAREN ERREFRAU ZAARREN TXORTEA

"Lenengo Egutegi Biskatara" izeneko kaleratu eban Sabino Aranak 1989. urtean zear. Ormako egutegi lez, Euskalerrian leenengo euskeraz, aurki. Aurreko urtean sakelarakoa bakarrik argitaratu baeban Sabinok berak, 1989. urte atan bietarakoa kaleratu gura izan eta alantxe egin eban.

Orduko sasoiko erderazko egutegiak lez, egun bako-txeko orritxu bat ekarren irakurteko. Egutegiaren ganeko azalean edo agurrean dakarren lez, Bizkaiko euskaldu- nentzako egina zan. Asmo garbia eukan a eginkeran, Biz- kaiko euskaldunengan "Jaungoikoa eta aldeko gogoa sortutekoa, atan be: "Oneek maite badozuz, neu be maiteko nozu. Bestelan, uretara jaurti nagizu". Alan bada, "egutegi abertzalea" eritxon areri.

Bertan danetariko argibideak emoten aalegindu zan: istoria gaiak, politika arlokoak, izkuntzakoak, erlijino- koak eta abar. An argitaratutakoen artean, aitatu bearre- koa da, berak asmatu edota euskerara egokitutako ize- nak egutegi aretan asi zala kaleratuten. Baina, lerrootara ekarri, beste zoezer ekarri gura izan dogu. Badira argibi- de areen guztiareen artean Bizkaiko tradizioari jagoko- zan ainbat errefrau edo esakun zaar be, ziur antzean, berak an-or-emen batuta. Bizkaiera da nagusi esaunko- tan, bai berben aldetik bai adizkeren aldetik be. Guk aona, barriz, ilean-ileango errenkadan eta eurotan alfa- betoaren arabera ekarri doguz esakuneok. Amaieran, berbaren batzuen esangurea obeto ulertuteko, berbalapi- ko antzean, iztegi laburra geitu dogu. Asago barik, gato- zan, bada, maminetara.

### URTARRILA

- Agure onari, ez atek itxi.
- Aldi txaburra bada, egun astia baino oba da.
- Atzerrian lurra garratz, oina ipini egik maratz.
- Balizko oleak, burdinarik ez.
- Biotza ta adimena gudan dira bearrago, iskuluak baino.
- Edonor da azarri, baina gudara doaz gitxi.
- Egia, latz eta labur.
- Ez egikek basotik oanean, eder ez danik urian.
- Surik ez dan lekuan, kerik be ez.
- Urde loiak, zitaldu.
- Zagokez isilik, eta ez daizu entzun gaiztorik.

- Zaran bat dagianak, bi dagiz.
- Zelangoa baista amea, alangoa oi da alabea.

### ZEZEILA

- Adion da bost ume: alaba bi ta iru seme.
- Alaba umaginari, amea estalgi.
- Aretx asko dan urtea, besteak baino ez ohea.
- Edozein oilar, bere aldapean.
- Ezkondu baino, etxea leenago.
- Lukikume, azeri.
- Oparinak nengian beargin, eta alperkeriak auzkin.
- Otsoak artzari min leio.
- Zuk au, nik au: zozkereak emon dau.

### MARTIA

- Adiskide bako bizitza, auzo bako eriotza.
- Asko badok, asko bearko dok.
- Atean uso, etxean otso: alako bizikerea, gaixo.
- Ekandu gaiztoa, belu aaztu doa.
- Emakume eder eta aberatsa, edo ero edo zarata.
- Emakumea eta sardina, autsetan aozpez.
- Idi zaarari, arran barri.
- Uri galduan auzia eskuan.
- Urte edurtsua, garjtsua.

### APIRILA

- Eskurean agora, okelea galtzen doa.
- Itsasoak, errekek eta iturriak eta ibaiak iruntsi.
- Jaki onak, dakarz gatxak.
- Jausi dan ezkurra, oroen su-egurra.
- Justuriaren atzean, euria.
- Lastozko buztana dauanak, atzera begira.
- Laztan eta apa? Leusindu eta kaltea.
- Legorrean artu ez doa, arrankaria.
- Neskea, azi dan lez; kirrua, irun dan lez.
- Ostikoa akuiluaganako, idiarentzat gaixo.

### MAIATZA

- Daukagunean naia, gurari baga izan goaz.
- Ez da aldatsik, ibar bakorik.



- Ez eiozu eskatu daukanari, ta bai onesten zauzanari
- Gibel ekatxari: bular aldi onari.
- Utsik datorrena, berealan biurtu .
- Laster emoten dauanak, birritan emoten dau.
- Nai ez dauanak ogenik, ines be; gaiztoaganik.
- Seinak dantzuna ezkaratzean, esan daroa atadian.
- Ukondoa ur da, baina mun egiten eskerga.
- Zeian etxea, urrezko atea.

## BAGILA

- Egia, erkoia.
- Etxean jopua ta oilarra, urte betean asko da.
- Eztia ta ozpin, gozo ta on egin.
- Lotsaga nindin; ogiz ase nindin.
- Aretxerean artera, ekandu gaiztoa artu aal da.
- Jauna, burkide gaizto.
- Lurraren umea, lurrak azi daroa.
- Naibako ezkontzea, nekea ta kaltea.
- Ondo egiok txiroari, Jaunak emongo deusk sari.
- Oski osoa naiz eztena, eskuan baino oinean obea.
- Ulerle onari, berba gitxi.

## GARAGARRILA

- Ez eik galdu aldia, ta jodoro daik guraria.
- Gaiztoto irabazia, iratxuak iratzia.
- Gaiztoto oi danari, bildurra jarraigi, ta kaltea jaurki
- Galdu ezkeru osasuna, ez da ezaguna.
- Galendua dabil, ubiren bila.
- Gatx egiten badok, ainbeste itxadok.
- Otsoren agotik okelea be, on.

## DAGONILA

- Auntzak ikusi garia, baina ez esia.
- Ardao gozoak lau begi, ta oinik ez.
- Ardi txikia, beti bildots.
- Arrats gorri, goizean eguzki.
- Bizar jleri, lotsa gitxi.
- Edozein zidorrek, dau luperia.
- Erroiaren arrautzak, usakumerik ez.
- Gaiztoto ala ondo jan, iru bider edan.
- Goiz gorri, laster euri.
- Goiz jagia, goiz gose; belu jagia, loz ase.
- Oilo gosea, beti soinulari.
- Oiloari osoa; astoari, lastoa.
- Orik ez dan errian, jbar-jaun da azeria.
- Otsoak bere aragirean, ez eban jan.
- Otsoak otsoari, gatxik ez; eta lapurrari lapurrak, laz-tan.
- Txakur goseak, ogia ames.

## IRAILA

- Aldats gorea, aldats beerea.
- Amuarrainak begi bi; sei ezkailuk amabi.
- Artzainak asarratu, gaztaiak agertu.
- Auzoko beiak, erroa luze.
- Aztertzen dago, ta burrustuko jat.
- Badaukazu zeugaz, jango dozu neugaz.
- Dagoanean, bon-bon; ez dagoanean, egon.
- Eguzkia nora, zapiak hara.
- Etxea erre ezkeru, uretan.
- Etxean ikusia, umeak jkasia.
- Guzurrea esan neban mendian, neu baino leenago zan errian.
- I eure etxean, eta ni emen.
- Itsua da, baetik ez dakusaua.
- Urdaia janda, garbaia.
- Zauriak otzituago, minago.
- Zor zaarra, zor txarra.
- Zu beti ero; otz ez dana bero.

## URRIA

- Diru gitxi daukanak, bekarz oinak eskuan.
- Edozerk dau izena.
- Edur asko dan urtean, garia; erle asko daukaguzeanean, eztia.
- Ez arda bitsurik, ez emazte bizartsurik.
- Gibel egiok ekatxari.
- Neure etxeako kea, laguneneko sua baino oba.
- Txiroak iutxausti dirudi: guztiok arrika beti.
- Urak dakarrena, urak daroa.

## ZEMENDIA

- Agurea ta labea, agotik berotu.
- Ardia auntzari, ule eske.
- Emongo badeustazu, luzatu ez eidazu.
- Ez beti, gaztai ta ogi.
- Gizon biziak, berea eskatu daroa.
- Leiak eta euriak, dakarrez eskura gariak.
- Ogiagaz gatxak, txikiago.
- Zekenaren bizian, kaltea; osasuna, aren eriotzea.
- Zozpalak dirudi bere egurra, ta egurrak bere zugatza.

## ABENDUA

- Daukanak gabon, ez daukanari emon. Ez da ori egia, bai daukanak daukanaria.
- Egia da latz, eta garratz eta mergatz.
- Emakumea soloi, urdea basoi.
- Etorri badakik bilatuten doau gatxa, gondu dakiala.
- Igazko abietan, aurten txoririk ez.
- Leiak ta edurrak, garia dakarre eskura.
- Ogi gogorrari, agin zorrotza.
- Ogi ta lasto, etxerako.
- Urte zaarrari, ostikoka beti; urte barria, orok onetsia.

## EDESTIA


Adion= egoki.  
Aldape= beerakada.  
Aldi= denbora.  
Aldi on= abagune, zori on.  
Amea= umea egin dauan ama.  
Apa= arpegian emoten dan musua. (ume.)  
Arran= joare, zintzarri.  
Auzi= kercila.  
Auzkin= auzizale.  
Azarri= ausart.  
Aztertu= iuduskatu.  
Baga= barik.  
Baist=- bait-.  
Bizi= zorrotz, zoli. (pertso.)  
Bon-bon= parra-parra eralgi.  
Burkide= aurkako, leiakide.  
Burrustu= craso, oldartu. (nor-nori)  
Dagi= egiten dau.  
Dagiz= egiten dauz.  
Daik= -ko dok (dozu).  
Daizu= -ko dozu.  
Dakus= ikusten dau.  
Dantzu= entzuten dau.  
Deusk= deua (deutsu).  
Egikek= egin eik (egin eizu). (gero)  
Egiok= egin ciok (eiozu).  
Ekandu= oitura.  
Erkoi= argal, mirri, makal.  
Ero= 1. mamala, memela; 2. zoro.  
Eroan= oi izan. (aditz igarokorrakaz)  
Erro= titiburu (abere).  
Eskerga= gatx, nekez.  
Estalgi= babesgarri.  
Ezkailu= kizkailu, txipa. (arraina)  
Gaiztoto= dongaro, txarto.  
Galendu= eskarmentatu.  
Garbai= damu  
-ri gilel egin= -ri popea emon, anka egin,  
Gondu= on egin, onurea atara.  
Joan= oi izan. (aditz igarogatxagaz)

## BERBALAPIKOA:



Aretx= ezkur.  
Ibar= lautada, zelai.  
Idoro= bilatuten dana aurkitu.  
Ines egin= ospa egin.  
Iratxu= iditxu, mamu.  
Iratzi= gozatu.  
Irun= goruetan egin.  
Itxadok= itxadon eik (itxadon eizu).  
Jarraig= jarraitu.  
Jaurki= craso, ekin.  
Jopu= otsein,  
Kirru= amuko, iztupa.  
Leusindu= lausengatu, koipatu.  
Lotsaga= lotsabako.  
Luperia= basatza, lupetza.  
Maratz= arduratsu, beargin.  
Mergatz= zakar, gozagatx.  
Mun egin= musu emon (arpegian izan ezik).  
Nindin= nendin, neinten.  
Ogen= oben, erru.  
Onetsi= oneritxi, ontzat artu.  
Oparin= bearrizan.  
Or= txakur.  
Oroen= guztien, orokor.  
Oski= oinetako, zapata.  
-rean= -tik, -rik.  
Txabur= labur.  
Txiro= ezeuki, beartsu.  
Ubi= ibi, ubeera.  
Umagin= seindun.  
Ulerle= ulertzaile.  
Zagokez= egon zaitez. (gero)  
Zaran= otzara.  
Zauz= zaitu.  
Zeia= merkatu.  
Zozkera= zozketa.  
Zozpal= ezpal.

Iniaki MARTIARTU  
2000 dagonilean

# EUSKALDUN BARRIENTZAT




Zulo onetan galdu dot eskua, lagundukonozu?




Marrazki onetan 7 erru dagoz.



Gure umetxuak ostopo bategaz aurkitu dira, bost bide daukie aurrean baña bat bakarrik doa baserrira. Zein?




Gure eiztari Josetxu, goibel doa etxera, zer gertatu ete jako? Jakiteko, batu zenbakiak.



**EUSKERAZALEAK**

Colón de Larreategi, 14 - 2.<sup>2</sup> dcha.  
48001 BILBAO

Akelarre. Nestor Basterretxea



## BAT GATUZ EUSKAL KULTUREAGAZ

Erakundearen konpromezutzat  
artuten dogu, geure erri onen  
arimeagaz bat egitea. Orrexegaitik  
lagunduten deutsegu gogo osoz,  
geure nortasun berezia indartuten  
deuskuen kultur adierazpenai.

Eta aparteko arreta iminten  
deutsagu, kultur adierazpenen  
artean, gure ezaugarririk gorena  
dan euskerearen garapenari.

**EZ DAGO GEIAGO ESKINTZEN DAUANIK**



**BBK**  
**Bilbao Bizkaia Kutxa**

200 pezeta

ISSN: 1132 - 1350

Lege gordailua: BI-1452-85

FLASH COMPOSITION, S.L. - BILBAO